



## OINEZKOA

Asko gara gure herrian oinez mugitzen garenak. Milaka joan-etorri egiten ditugu eta askotan, behar baino ardura gutxiagorekin; izan ere, oinezkoak gara trafikoaren partaiderik ahulenak. Horregatik, arreta eta zuhurtzia areagotu eta zirkulazio arauak zintzo bete behar ditugu. Zertarako, galdetuko duzue: Geure buruak babesteko!

Babes hori lortzeko zenbait iradokizun egin nahi ditugu. Aholkuen horien bidez zenbait egoeretan gure burua nola babestu ikasiko dugu. Oinezkoen arrisku-egoerak ugari izan badaitezke ere; guk, gure aburuz, ohikoenak, eta ondorioz garrantzitsuenak, aztertuko ditugu. Esaterako: Espaloian nondik ibili; semaforoan aurrean nola jokatu; oinezkoentzako pasaguneak nola zeharkatu; aparkatutako autoen artean ibiltzeak zer nolako arrisku dituen aztertu; eta azkenik, oinezkoa eta bizikletaren arteko tirabirak etsaminatuko ditugu.

Gure herri eta hirietako kale gehienak zati ezberdin bi dituzte: batetik, galtzada; eta bestetik, espaloia. Galtzadak automobilak eta bestelako ibilgailuak beratatik ibil daitezen prestatuta daude. Espaloia aldiz, galtzada bera baino pixka bat goraxeago dagoen eta oinezkoak bertatik ibiltzeko den kale-zatia da. Beste kale mota bat ere badago, bertan oinezkoak bakarrik ibili daitezke. Kale mota horri oinezkoentzako esparrua deritzo.

Zonalde-peatonaletan eta espaloietan oinezkoak bakarrik ibil gaitzke, aurretik esandakoaren arabera; beraz, leku horietan ibilgailuetatik seguru egongo gara. Ondorioz, gune horiek erabiliko ditugu gure eguneroko joan-etorrietan. Ibilgailuak zirkulatu EZIN duten tokietatik ibiliko gara gure segurtasuna bermatzeko, ezin baitugu ahaztu oinezkoen istripu larrienak ibilgailuen kontra gertatzen direla.

Kale-zati horietatik, ordea, ezin gara nahi dugun bezala ibili. Galtzadatik ahal bezain urrun ibiliko gara. Espaloitik kontuz, arretaz arituko gara; batik bat garajeen sarrera-irteeretan. Garajeak arriskutsuak dira, ibilgailuek bertara sartzeko espaloia zeharkatu beharrak eta irteten ari dira auto-gidariak duten ikusmen eskasak arrisku egoerak sortarazten baititu.

Espaloiak eta zonalde-peatonalak soilik erabiliz, ordea, ezin izango gara beti gure helmugara iritsi; batzuetan, galtzadak zeharkatu beharko ditugu eta. Hori egiteak bere arriskua du. Hortaz, galtzada gurutzatzeko erramintak erabiliko ditugu: semaforoak eta oinezkoen pasaguneak.

Semaforoa argi seinalea da eta bere eginkizuna trafikoa antolatzea da. Semaforoak hiru kolore ezberdin – gorria, anbar-kolorea eta berdea – erabiltzen ditu ibilgailuak erregulatzeko. Oinezkoak antolatzeko aldiz, bi kolore baino ez ditu erabiltzen: gorria eta berdea. Gorriak errepidea gurutzatzea debekatzen du; berdeak, ordea, igaro gaitzkeela adierazten du. Berdea piztuta dagoenean, errepidea zeharkatu badezakegu ere; begiratu egingo dugu gurutzatu aurretik autoak gelditu egin direla ziurtatzeko.

Oinezkoen pasaguneak lurreko seinaleak dira. Oinezkoek beratatik igaroko ditugu galtzadak, galtzadatik ezin baikara ibili; eta bertatik pasatzeko lehentasuna dugu, askotan, lehentasun hori teorikoa bada ere. Semaforoek txandaka ematen digute igarotzeko baimena autoei eta oinezkoiei. Oinezkoen pasaguneetan, ordea, ez dago txandak erregulatuko dituenik; beraz, gurutzatzerakoan kontu handiz eta hurrengo pausoak betez arituko gara:



- 1.- Lehenengo gure EZKERRETARA begiratuko dugu; gure ezkerretatik gidatzeko sistema dela eta, autoak bertatik hurbiltzen baitzaizkigu.
- 2.- Bigarren pausoa ESKUINETARA begiratzea izango da, beste erreiletik datozen autoak kontrolatu behar baititugu.
- 3.- Gurutzatu aurretik EZKERRETARA begiratuko dugu berriro ere.
- 4.- Azkenik, aurreko hiru pausuak eman ostean, galtzada gurutzatuko dugu alde bietara begiratu goazen bitartean.

Gurutzatzerakoan kontuan hartu beharreko lau pauso horietaz gain, beste bi “arau” ere izan beharko ditugu presente. Batetik, oinezkoen pasagunea artez igaro beharrekoa; eta bestetik, pasagunea autoak hurbiltzen zaizkigun aldetik ahal bezain urrunetik zeharkatu beharko dugulakoa.

Galtzadak zuzen gurutzatzeko beste biderik ez dugu, oinezkoen pasagunea edo semaforoa ez den beste aukerak arriskua areagotzen baitute. Demagun, beste lekuren batetik igaro nahi edo behar dugulakoa edozein dela medio-. Lehenengo eta behin, espaloietatik eta galtzadaren artean aparkaturik dauden autoekin egingo dugu topo; bestetik, aparkaturiko autoen artean aterako gara galtzadara eta hori oso arriskutsua da, auto gidariek ez baitaitezute ondo ikusten eta horrek harrapatuak izateko posibilitatea handitzen baitu; azkenik, galtzadaren zati edo tarte horretan autoek dute lehentasuna, ez guk!

Aipaturiko kontu horietaz gain aparkaturiko ibilgailuen artean, egon badago, kasu berezi bat: autobusa. Ibilgailu oso handia eta altua izanik gure ikuspena erabat ezeztatzen du. Horregatik, ez dugu inoiz autobusaren aurreko aldetik gurutzatuko, hurbil geratzen den oinezkoen pasagune batetik baizik.

Oinezkoaren inguruko jarduera hau amaitzeko teoriarik eman ezin de, baina, praktikan ematen den kasu bat aztertuko dugu: espaloietatik dabilen bizikletarena. Guztiz debekatuta dago bizikletarekin espaloietatik ibiltzea, baina gure espaloietatik bizikletak ibiltzen dira. Guk oinezko lez, gure segurtasuna bermatu behar dugu; beraz, zer egin espaloietatik abiadura handian bizikleta bat hurbiltzen bazaigu? Egoera konpontzeko bi aukera daukagu: batetik, gauden tokian estatua bagina bezala gelditu edo; bestetik, erabakitasunez baztertuko gara espaloien albo batera. Honela, gure segurtasuna eta txirrindulariarena handitu egingo baititugu, txirrindulariari nondik igaro behar denaren erabakia errazten baitiogu. Egoera hau saihestu ahal izateko komenigarria litzateke bizikletak bidegorrietatik ibiltzea, eta, hau ere garrantzitsua da oso, bidegorriak errespetatuz, oinezkoak espaloietatik aritzea beti.

Horrek guztiek gure eguneroko joan-etorrietan segurtasuna handituko dute- betiere aholkuei kasu egiten badiegu-. Trafikoaren partaiderik ahulenak izaki eta gure segurtasuna handitu asmoz, oinezkoek gure esku dauden erreminta eta estrategia guztiak erabiliko ditugu, honekin guztiarekin gure bizi kalitatea hobetzea baitugu helburu